

LITERATURA. Yourcenar, Golding eta Fuster zituen aurretik itzuliak

Max Frischen 'Homo faber' eleberria euskaratu du Joxe Austin Arrietak

Elkar argitaletxeak eman du argitara suitzar idazlearen lana, XX. mendeko Europako nobelagintzaren fruitu nagusietako bat



Egilea: Max Frisch
 Izenburua: 'Homo faber'
 Itzultzailea: Joxe Austin Arrieta.
 Argitaletxea: Elkarlanean.
 Orrialde kopurua: 306.
 Goia: Walter Faber suitzar ingeniariari munduko hainbat bazterretan zehar bidaiatzea egokituko zaio. Hainbat ustekabek kordokarazi egingo dute haren pragmatismoaren ziurtasuna.

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

XX. mendeko Europako nobelagintzako gailurretako bat da atzo euskarak, Joxe Austin Arrietaren itzulpenari eta Elkarlanean argitaletxeari esker, bere egin duena, Max Frisch suitzar idazlearen *Homo faber*. Nahiz eta euskal idazle asko izan Max Frisch gustuko dutela aitortuak, ez da orain artean haren obra askorik euskaratu. Antonio Maria Labaienek *Su-emai-leak* antzezlanaz itzuli eta *Egan* aldizkarian plazaratu zuen 1966an, eta harrezkero ez da Frischen beste libururik euskaratuta argitaratu.

Arrietak bere buruari ezarritako «desafiotxo» baten ondo-

riozan da itzulpena. Aurretik, literatura unibertsaleko obra ezagunak frantsesetik (Marguerite Yourcenaren *Hadrianoaren oroitzapenak*), ingelesetik (William Golding-en *Elulien ugazaba*), katalanetik (Jaume Fusterren *Beirako giltzak*) itzuli ondoren, «alemanieraren txanda» heldu zitzaion Arrietari, Frisch itzultzeari ekin zionean.

«XX. mendeko Europako nobelagintzan puntarengoa da *Homo faber*», Arrietaren ustez. «Nik neure lanetan erabiltzen dudana kontrakoa da Frischen estilora honetan, baina nik uste dut, hain zuzen ere, diziplina hori oso lagungarria dela. Luma trebatzeko, esapideak doitu eta zorrozteko...»

JOXE AUSTIN ARRIETA

'Homo faber'-en itzultzailea

«Neure lanetan erabiltzen dudana kontrakoa da Frischen estilora, baina diziplina horrek luma trebatzen laguntzen du»

JOXERRA GARZIA

idazlea

«Gaztelaniako bertsiotik irakurri duenak baino arrazoi handiagoz esango du euskarazkoa irakurriki obra ezagutzen duela»

Itzulpena argitaratu baino lehen, Joxe Austin Arrietak Joxerra Garziari eman zion itzulpenaren lehen zirriborroa. Garziak Arrietaren lana errepasatu eta oharrak egin ziezazkien. «Lehendabiziko konpro-



Joxe Austin Arrieta, atzoko liburu aurkezpenean.

bazioa euskarazko bertsiotik, alemanezkoaren erreferentziarik gabe, oso ondo zihola izan zen», esan zuen Garziak. Euskarazko bertsiotik jariatzen hura alemanezkoarekin konparatu zuenean, Garzia jabetu zen itzulpena «egina eta ondo egina zegoela».

Estilo gutzitiferentea

Arrietaren estiloaren aldean gutzitiferentea da Frischena, nobelan «asepsia kontziente muturreraino eramandako bat» dagoelako, egilea «soiltasun sintaktiko eta estilistikora» eraman zuena, Arrietaren estiloaren gutzitiferentia kontrakora, beraz.

«Italiarazko *traduttore, traditore* esaldi ezagunaren euskarazko itzulpena aspaldi egin da nik neure erara: *itzultzaile, itzultzaile*», esan zuen Garziak. «Itzali egin behar baitu bere sua, bere estiloa; itzultzailearen arrakastarik handiena bera itzali eta desgertzea da. Nik uste dut Arrietak pasatu zidan zirriborroa oso getru zegoela hori lortzetik. Berak Arrietari egindako oharra gutxi eta puntualak izan dira esan zuen Garziak.

Gaztelaniako bertsiotaren aldean, euskarazkoa askoz hobea da, Garziaren iritziz: «Gaztelaniakoa irakurri duenak baino arrazoi handiagoz esan ahal

IRAITZIA

Joxe Azurmendi | IDAZLEA

Moderniaren meditazioa

Zenbatu ditut, eta lauorgeri inguru Faber dago Koloniako telefono liburuan. Oso deitura arrunta da Faber alemanez. Bestetik, *homo ludens* eta *homo sapiens* dagoen bezala, *homo faber* dago: tresnagilea, teknikoa. Batzuek hain zuzen tresnagilea izatea gizonaren definitziaz hartu izan dute Aro Garaikidean. Marx eta Engelsek ere hala egiten zuten. Max Frischen eleberria gizaki garaikide horren ondoezaren paradigma bat da. Gertakariak 1957an kokatzen dira: Mundu Gerra ez da aspaldi bukatu, Europa berregintzako euforia teknikoan bizi da. Urte horietan, inkonformismoaren espresioa Frantziar Camus, Sartre, existentzialismoa ziren. Max Frischen protesta garai bereko Heideggeren teknikaren kritikatik doa gehiago. Horregatik Faber deritza bere nobelako protagonistari.

Walter Faber, Unescoarentzat

New Yorken lan egiten duen ingeniari suitzarrak da. Buru tekniko bat. Sentimenduei eta halabeharra bezalako sineskeriei kasurik ez die egiten. Mexikora hegaldi batean, estudiantentan ezagutu zuen lagun baten anaiaaren alboan halabehartzen zaio eserlekua. Biok Joachimen bila jungal ibiliko dira: bere burua urkatuta aurkitzen dute. Berririo New Yorken, amoranteari aspertuta ihes egitearren, gurutzero bat hartzen du bat-batean Parisera, itxuraz irrazionalki. Ontzian Sabeth neska gaztea ezagutzen du, lehen momentuan Hanna, bere estudiantetako andregaiaren antza duena, iruditzen zaiona. Baina pensatzen du Hanna gero Joachimekin ezkondu zela, Mexikon jakin berri duelako, iruditzi zaiola ho-


ri. Hala ere 36-37ko oroipekin ez dute gutzitiferentia utzen: zergatik ez zuen orduan Hanna ezkondu, erdi-judua zena eta hiritargo suitzarrak babesa eman izango ziokeena, haurdun zegoela jakinda, gainera. Dena den, Sabethekin maitemindurik, biek Europar zehar elkarrekin bidaiatzen dute. Ustekabean ondorioz, Faberren buru-barru teknikoa aski kordokarazita da, Atenasen ezusteko batek nobelaren desenlaxa halabehartzen duenean.

Gertatu den guztiaz berririo oroitzen, Faberrek —orain nobelaren idazle— ezin du istorioa koadratu. Zer gertatu da zehazki? Nola esplikatu den? Halabeharra, patua, kontzeptu lausoak dira. «Nik ez dut Halabeharrea eta Patuan sinesten; tek-

nikaria naizenez, gertagarritasunaren formularen arabera pentsatzen oihitua nago» (29 or.). Baina agerian dago, bizitza kasualitateez egin da, ez da planifikatu dugun historia bat. Kontrolatzen ez dugun kondaira batean nabigatzen ari gara. Faberren modernitate maskulinoak razionalki eta matematikoki kontrolatu nahi luke, baina ez du lortzen bizitza bere egian atzematea. Sabeth, alabaina, berak bezalaxe Hannak galtzen du, mitoak razionalki maite dituen modernitate femininoak (214 or.). Yukatango emakume-enganetik hain diferentek, bere independentziarako grina amorratuarekin. Eta Sabeth bera, modernitate bikoitz honen haur alai, errugabea, etorkizun gabeko bidaia bat baizik ez da.

Max Frischen nobela ez da propioki sozial-kritikoa. Gure mundu honekiko deserosotasun sentimendua da gehiago azaltzen duena. Inor ez da gaiztoa. Baina kultura honek sentimenduekin ez daki zer egin. Ez du jakin nazismoak pertsegutiei efikazki laguntzen. Ez du bere egoismoaren kontzientzia txarrik, edo razionalizatu egiten du hori seguitan, barnean hitzitzen hasten zaion edozein bihozakada bezala, ezabatzeko. Sentimenduren batek gainezkatzen duen orduko, Faber galduta dago. Ezin du onartu, bere tresneria razional gutzitiferentia da autogainatzeko.

Makinaren soiltasun perfektu batean idatzia, estilo kolokialean —kolokioa teknikarien artean sozoposatzan bada—, gaiari beti beharzaile gisa oharutz, nobela honetan hainbat azterkizun legoke, eskolan egiteko adibidez: 1. Walter eta Hanna, bi mo-



IKUS-ENTZUNEZKOAK. Proiekzioak, mintegiak, artea eta musika izango dira aukeran

Gasteiz, soinu eta irudien eremu

Ikus-entzunezkoen XVI. Jaialdiak programazio aberatsa eskainiko du bi hilabetez

Ivan Santamaria | GASTEIZ

Arte eta teknologiaren arteko elkarrekintzan sakondu izan du urtez urte Gasteizko Ikus-entzunezkoen Jaialdiak. Aurten 16 urte beteko ditu ekimenak, eta inguruan programazio aberatsa prestatu dute Gasteizko Udalak eta Montehermoso Kulturgunek. Arte plastikoak, musika, irudia eta soinuak hamaika espresio ezberdin izango dituzte ekinean eta uztailean garatuko den VTV (Gasteiz Lurralde Bisuala) ekitaldi sortaren bidez.

Montehermoso kulturgunea izango da ekitaldien gune nagusia, baina, hala ere, antolatzaileen asmoa programazioa ahalik eta toki gehienetara eramatea da, hiritarrei hurbiltzeko. «Artearen izaera berria baliatu nahi dugu, mugarik ez duen izaera baita», azaldu du Encina Serreano Kultura zinegotziak.

VTV ekainaren lehen egunean abiatuko da, kontzertu batekin eta Leda Vuela erakusketarekin. Euskal Herriko hamar bideo-sortzaile emakumezko ariko dira.

Hainbat ziklo eta ekitaldi programatu ondoren —Jean Cocteau eta Man Rayren film emanaldiak, esate baterako—, ekainaren 22an hasiko da jaialdia. Interesa piztu



Jean Cocteau, 30ko hamarkadan egindako argazkian.

du aurten, eta, Serranok areratu zenez, ia bino zinta gehiago jaso dira. Oro har, %15 igo dira jasotako zintak, eta fikzioko sailaren kasuan %40. Ekainaren 23 eta 24an jaialdiaren izaera kalean isla-

tzea nahi dute antolatzaileek. Gasteiz, plato bat ekimenaren bidez kamerak karriketaratu eta hiritarrak izango dira film labor baten protagonistak. Ekainaren 29an emango dute filma, Montehermoson.

BAT-BATEKO FILMAK

Bat-bateko film laburren lehiaketa antolatuta da. Egun batean filmatua behar du izan, eta asko jota hiru minutu iraun

Ekainaren 29an Jaialdiaren beste proposamen berritzaile bat gauzatuko da: Bat-bateko Film Laburren gaua. Espainiako Estatu osoik etorritako zuzendariak 24 ordu izan dituzte film labor bat filmatzeko Euskal Herriko toki ezberdinetan. Beste edonondik posta elektronikoen bidez parte hartzeko aukera eskaintzen zaie zuzendariari.

Profesionalek zein zaleek elkarrekin eztabaidatzeko foro ugari izango dituzte. Hala, *Paisaia Iragan Korra* nazioarteko jardunaldietan hiriaren egiten diren esku-hartze artistikoak izango dira hizpide. Net Art Mintegian, berriz, arte elektronikoaren inguruko proposamen berritzaile bat koordinatuko du Laura Baigorri.

Jaialdia amaitzeko, musika berrien emanaldi bat izango da antzinako ur gortaituan.

izango du euskarazkoa irakurtzen duenak *Homo faber* ezagutzen duela». Eta Arrietak *itzaltzaille* lana ondo egin duelako da hori, neurri handi batean, Garziren ustez.

«Gizaki modernoaren paradigma» da Walter Faber, *Homo faber* nobelako protagonista, Joxe Azurmendiren ustez. Naturarekiko menpekotasuna gauditurik, «independentzia» lortu du, baina independentzia baino gehiago «leku falta» baino ez da askatasun hori, Azurmendiren aburuz. «Ez da inongoa, eta, halaber, gaitundia nahirik, halabeharretik zintzililik geratzen da azkenean».

derniteren eredu gisa, 2. Faberren antzaldaketak (bere buruarekiko, naturarekiko), 3. Teknika eta natura, teknika eta artea (museoak), 4. Figura femininoak eta modernitatea, 5. Autoengainu eta gizon-emakumeen arteko engainu mekanismoak, 6. Ezustekoaren rola bizitzan, bilatu gabeko askatasun espazioak oparitzen (ia beti berriro galduak) eta abar.

Gerraondan asko egon zen mundu teknifikatuaren kontzientzia kritikoa hau (orduan ere gutxiengotarra, noski). Ez dut uste itzalia denik. Gandiaga hil eta utzi dituen zirriborroen artean, papertxo batek hauxe dio: «Zenbat kantu hil / daramadan barruan! / Zenbat kantu hil, / lana deritzonak itoa, / zenbat kantu hil, / homo faber-aren zerbitzu / itsuan!». Frisch bezala, Gandiaga ere, bere erara, teknikaren meditazioan. Moderniaren meditazioa baita hori.

EUSKADIKO XXI. GIPUZKOAR AURRESKU TXAPELKETA

Pasai Txapela, 2001eko Maiatzaren 27an.

ANTOLATZAILAR: PASAIAKO UDALA

BARRESIA: kutxa

LAGUNTZAILEAK: Euskarria

Egunkaria

JESUS JAUREGI TROFENA

Euzko Lehiaketa

Dantza, bertsoa eta trikitixa uztartuta

AURKEZTEN DU

UPELETAN TERRORKA EIBARREN

Bihar, maiatzak 26-larunbata 20:00etan - Untzaga plazan

Egunkaria